

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ESKUERNAGAKO UDALA

#### **Bodega Badiola SLUk eskatutako jarduera baimena**

Bodega Badiola SLUk upeltegirako jarduera baimena eskatu du, Eskuernagako 1 poligonoko 843, 703, 702, 75, 72 eta 71 lurzatietan ardoak egin, ondu eta botilaratzeko.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babestearenak, 58.1 eta 58.2 artikuluetan xedatutakoa betez, jendaurrean jartzen da, jarduera horrek erasan egiten diela uste dutenek aukera izan dezaten egoki jotzen dituzten alegazio eta oharrak aurkezteko, hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Eskuernaga, 2020ko martxoaren 3a

*Alkatea*

*IÑAKI PÉREZ BERRUECO*